


INDESA (Centro especial de empleo)



General Álava kalea 10 5º, 01005 Vitoria-Gasteiz

945 23 36 53

indesa2010sl@araba.eus

www.indesa.eus

Indesa enpresaren helburu nagusia enplegua, aukerak eta aberastasuna sortzea da, gizarte-berrikuntzako formulen bidez, desgaitasuna duten pertsonen lanpostu bat lortzeko aukera emateko, euren bizi-proiektua gara dezaten.

Talde adituek sortutako gizarteratze eredu bat garatzen du, ekitate, inklusio eta jasangarritasun printzipioen pean. **Indesako** kide den pertsona bakoitzaren errealitatera egokitutako gizarteratze-ibilbide pertsonalizatuak diseinatuak dituzte. Horrela, desgaitasuna duten pertsonen enplegu ordainduan jardutea eta komunitatean herritar aktibo eta baliotsu diren aldetik baloratuak izatea lortzen dute.

Beren lantokietatik garbitegiko nahiz sukaldeko lanak egiten dituzte. Bezeroen instalazio industrialetan ere eskaintzen dituzte zerbitzuak.

Vital Fundazioarekin lankidetzak

Vital Fundazioa Indesarekin lankidetzan aritu da "Indesa 2010 SLko enplegu-zentro berezietako okupazio-zentroetako erabiltzaileen gaikuntza profesionalerako prestakuntza eta praktika aplikatuen proiektua" izenekoan, Fundazioak 2025ean abiarazi zuen Laguntzen

Deialdi Irekian aurkeztua.

Indesa Enplegu Zentro Bereziaren eta Gizarte Ongizateko Gizarte Institutuaren (AFA) titulartasuneko zentro okupazionalen arteko lankidetzeta-hitzarmen baten barruan sartzen da proiektu hau, desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko, enplegu-zentro berezian bertan duten gaikuntza praktikoaren bidez. Horretarako, parte-hartzaileak partzialki sartuko lirateke (lanaldiaren zati bat) benetako lantaldeetan, eta lan-prestatzaileen etengabeko laguntza izango lukete, autonomia eta prestakuntza-maila mugatua baitute.

Sei hilabeteko prozesua da eta parte-hartzaileek lan ohiturak nahiz gaitasunak ikasten dituzte – hala nola garbiketa orokorra, garbitegi industrialak, berdeguneak mantentzen eta cateringa –, ondoren enplegu bat lor dezatela errazteko, eta hori oso zaila da gaur egun.